


BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bidez, enpresa bat bezeroarengana iristen da, bezeroarekiko harremana mantentzen du eta diru sarrerak lortzen ditu. Funtsezko baliabideak sailkatu egiten dira: Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak

Gure enpresaren baliabideei dagokienez dezente dira beharko ditugunak.

Lehenik eta behin, instalazioak beharko ditugu produktuak fabrikatzeko. Izan ere, nonbait sartu beharko dugu 3D inpresora eta horrez gain produktuak diseinatzeko tresneria lasai erabili ahal izateko estudio bat ere beharko dugu. Baliabide fisikoekin jarraituz, makinak ere beharko ditugu produktuak fabrikatzeko, enpresaren “protagonista” den 3D inpresora hain zuzen ere.

Zenbait baliabide intelektual ere beharko ditugu: Esaterako, ezagutza, azken finean makinaren erabilpenari buruzko ezagutza izan beharko dugulako. Horretarako formazio kurtso bat jaso beharko dugu ziurrenik edo bestela horretaz dakien norbait kontratatu beharko dugu. Horrez gain, bezeroen datu baseak ere beharko ditugu. Izan ere, online salmenta ahalbidetuko diegu eta horretarako beharrezkoa da hauen datuak izatea, etxera produktua eramateko hain zuzen ere.



Aurrez aipatutako bi baliabideez gain giza baliabideak ere beharko ditugu: Izan ere, Sormena duen eta diseinuari buruzko ezagutza duen pertsonaren bat beharko dugu gure produktuak diseinatzeko. Horretarako, diseinatzaile bat edo diseinuan espezializatutako ingeniariaren batekin jarri beharko dugu kontaktuan, guk ere berez dugun sormena garatzen lagunduko diguna. Bestalde, gaitasun komertzialak ere beharko ditugu gure produktua saldu ahal izateko. Izan ere, garrantzitsua da gure produktua nola saldu jakitea bezeroak erakartzeko. Gaitasun komertzial horiek gureganatzeko kontratatutako marketin enpresa izango dugu.

Bestalde, hainbat finantza-baliabide ere beharko ditugu. Argi dago enpresa bat aurrera ateratzeko dirua beharko dugula, hau da, azken finean negozioa bera zabaltzeko dirua beharko dugu, horrez gain, langileei soldatak ordaintzeko beharko dugu eta kanpoko erosketak egiteko ere: materiala erosteko adibidez. .Finantza baliabide hauek eskuratzeko, finantziarioaren atalean azaltzen den moduan, kooperatiba bat sortuko dugu gure eta kooperatibara finantza baliabideak eskainiko dizkigun bazkide bat batuko zaigu.